



AMEZKETAKO UDALA

FERNANDO AMEZKETARRA

ESPILA SALETXE

GALARTZA GARAIOA

XX.mendean, bere lehen urteetatik azkenetakoetara, beti pentsatu izan da Espilla saletxe esaten zitzaion eraikinean jaio zela gure bertsolaria, 1764an. Oraindaino ez da aurkitu agiri bat bera ere horrela dela esateko. Fernandorekin lotura duen elementu bakarra hauxe da: 1877an, Karlos Bengoetxea eta Tomasa Artano senar-emazteak bizi zirela. Karlos Bengoetxea hori Fernandoren bilobetako bat da. Bai, Fernando jaio eta handik ehun urtera, kasik. Hori bai, Gregorio Mujikak 1925ean idatzitako liburuan Espilla saletxen mundura etorri zela esaten zenetik, amezketarrok beti uste izan genuen teilatupe horretan jaiotakoa zela. Baina, usteak erdia baino gehiago kasu honetan ustel.

1951an Donostiako Club Vasco de Camping elkarteak marmolezko lapida bat jarri zuen Espilla saletxen Fernandoren jaiotza gogoratzeko. Azken urteetan oso egoera kaskarrean zegoen eta, 2006an eraistea erabaki zen.

Fernandorekin batera, 1797an, Aralarko meategietan lanean ibilitako Migel Ignazio Galartzak bere biziaz beste egitea deliberatu eta, arbola batetik zintzilikatu zuen bere burua. Heriotz hura argitzeko deitutakoen artean zegoen Fernando Bengoetxea. Epaileari esan zionez, hildakoa oso ongi ezagutzen omen zuen Fernandok, “hamabost urtez etxe berean bizitakoak zirelako”. Itxura guztien arabera, “Galartza Garaikoa” zen etxe hori, zeren, Migel Ignazio Galartza eraikin hartan jaiotakoa baitzen eta besterik ezagutu ez zuena. Horregatik diogu, beti ere hipotesi mailan, “Galartza garaikoa” esaten zaion etxean ere bizi izandakoa izan litekeela gure bertsolaria. Seguru asko, bere gaztaroa etxe horretan eman zuen, morroi gisa edo.